



# 12 EKOIZPENA ETA KONTSUMO ARDURATSUA



## HELBURUA:

Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

## 12. GIHk egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua aldatu nahi du, baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra lortzeko

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Hondakin sorrera eta kudeaketa
- Hondakinen berrerabilpena eta birziklapena
- Zabor sakabanatuak eta hondakinen isurketa inkontrolatuak
- Elikagaien xahuketa
- Kontsumo arduratsua eta baliabide naturalen erabilera
- Udalak egiten dituen erosketetan eta kontratazioetan ingurumen irizpideak
- Udal-zerbitzuetako ingurumen-kudeaketa

Garapen Jasangarrirako **12. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJHeKin ditu lankidetza eremu gehien:



## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

**Hondakinen sorrera, berrerabilpena, birziklapena eta kudeaketa**

Hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzuak mankomunatuak daude Eskualdean. Urola Kostako Udal Elkarteko (UKUE) Ingurumen Saila 1995ean sortu zen, hiri hondakinak kudeatzeko zerbitzu mankomunatuak eskaini eta koordinatzeko. Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako 40.000 biztanle ingururi eskaintzen dizkio zerbitzuak. Ingurumen sailaren helburuak hauek dira:

- Hondakinak gutxitzea.
- Hondakinen berrerabilpena bultzatzea.
- Gaikako bilketak areagotzea.
- Isurketa inkontrolatuak eta hondakinak erretzea mugatzea.
- Ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiten dieten lehengaien erabilera sustatzea.
- Sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egitea.
- Kudeatzaileen erantzukizuna areagotzea.

2018. urtean hondakin jasoketa sistema aldatu zen Zarautzen. Gaur indarrean dagoen jasoketa sistema ondorengoa da:

**Etxebizitzak:** Eskualdeko herritarrek hainbat zerbitzu dituzte eskura hondakinak sailkatzeko:

- **Kaleko edukiontziak**, hondakin organikoak, errefusa, papera eta kartoia, ontzi arinak, arropa, ehunki eta etxeko tresna txikiak, etxeko landare olioia eta pilak jasotzeko. Hondakin organikoen eta errefusaren edukiontziak txartel magnetikoarekin irekitzen dira. Etxebizitza bakoitzak txartel bat du eta puntu jakin bateko edukiontziak irekitzen ditu.
- **Garbigunea:** Eskualdean hiru garbigune daude eta horietako bat Zarautzen dago. Zarauzko garbigunea, eskualdeko txikiena izanik hondakin gehien jasotzen dituena da. 2022.urtean garbigune berria eraikiko da orain dagoena baino handiagoa.

Garbigune honek **hondakin berrerrabilera** sustatzeko azpiegitura espezifikoak izango ditu.

- **Hondakin handien bilketa (traste zaharrak).** Erabiltzaileek hondakin handiak edukiontzien eremuetan utzi ahal dituzte asteazkenetan, 20:00etatik 22:00etara. Bilketa ostegunetan egiten da.

**Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak:**

- **Hondakin kopuru txikiak** sortzen dituzten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek kaleko edukiontziak eta garbigunea erabili behar dituzte.
- **Hondakin kopuru esanguratsuak** sortzen dituzten establezimenduei puntuz puntuko bilketa zerbitzua eskaintzen zaie frakzio hauek jasotzeko:
  - **Bilketa establezimenduan bertan:**
    - Hondakin organikoak (egunero)
    - Papera-kartoia (egunero, astelehenetik larunbatera)
    - Polispan eta egur kaxak (asteazkenetik ostiralekera)
    - Errefusa (asteazkenetik bitan)
  - **Kaleko edukiontziak:** kaleko edukiontzietan utzi behar dituzte honako frakzioak:
    - Ontzi arinak
    - Beira

Establezimenduei ontziak ematen zaizkie, puntuz puntuko bilketako frakzioak ateratzeko. Ontzi horiek establezimenduaren kanpoaldean utzi behar dira, bilketa zerbitzuak adierazitako ordutegian eta leku zehatzean.

**Enpresak:**

- Industrialdeetan puntuz puntu biltzen dira honako frakzioak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, kartoia eta plastiko filma/poliespana. Jantokia duten enpresei hondakin organikoen sortzaile handiei aplikatzen zaie puntuz puntuko bilketa aplikatzen zaie.
- **Landa eremuari dagokionez**, bilketa guneak daude edukiontzi guztiekin.

**Beste jasoketa batzuk:**


- **Silo bolak:** Urkome, Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteak, biltzen ditu silo bolen plastikoak (hileko bigarren asteartean egiten du). Urkome abeltzaintzako jarduerak sortzen duten artileaz arduratzen da baita ere.
- **Etxe-abereak** (txakurrak, katuak...) albaitariekin jasotzen dituzte.
- **Ganadu hilen** bilketarako zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen du.

## EKOIZPENA ETA KONTSUMO ARDURATSUA

- **Bolumen handien bilketaz** ere arduratzen da UKUE udalerrietan. Hala ere, arazoak sortzen dira, ez direlako egunak eta lekuak errespetatzean askotan.
- **Amianto:** Garbiguneetan bilketa zerbitzua dago. Hileko azken ostegunetan, hilabete batean Aia-Orioko garbigunean eta hurrengoan Zumaiaikoan.
- **Obra txikietako eraispin- eta eraikuntzako-hondakinak.** Garbiguneak onartzen ditu, hiru frakzio hauetan egoki sailkatuta: hondakin petreoak, hondakin arriskutsuak eta hondakin ez arriskutsuak. Udalak eraikuntza eta eraispin hondakinen ordenantza izateko betebeharra dauka (112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispin-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena).

Hondakinen bilketak azken urteetan izandako bilakaera ondorengo grafikoetan erakusten da. Datu hauek kaleko edukiontzietan eta merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduetan puntuz puntuko bilketan jasotako hondakinei egiten diote erreferentzia eta ez daude barneratuta garbiguneetan, sailkapen-plantan eta industrietan bildutako hondakinak. Datuak Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia udalerriei dagozkie, bilketa bateratua egiten baita.

Etxeko eta merkataritzako hondakinen sorkuntza (kg/biz.egun)




2016tik aurrera hondakinak sortzeko joera beheranzkoa dela ikusten da; beherakada hori 2018an gertatu da batez ere, hondakinak biltzeko sistema berria ezarri ondoren. 2018ko datua EAEko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa da.

*Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Saila*

Garbiguneetan, sailkapen-plantan eta industrialdeetan bildutako hondakinak ere kontuan hartzen baditugu, hondakinen bilketa-tasaren bilakaera honako grafiko honetan ikus daiteke:

Hondakinen sorkuntza kaleko edukiontziak, establezimenduak, enpresak, garbiguneak eta sailkapen planta kontuan hartuta (kg/biz.egun)




Eskualdean bildutako hondakinen guztizkoa integratuta aztertzen badugu, beherakada bat ikusten da 2020an. Beherakada hau COVID-19 pandemiak sortutako konfinamendu egoerari zor zaiola pentsa liteke.

*Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Saila*

## EKOIZPENA ETA KONTSUMO ARDURATSUA


Gaikako bilketari dagokionez, ostalaritzako, merkataritzako eta zerbitzuetako establezimenduetan hiri-hondakinak edukiontzietan biltzea eta atez ate biltzea kontuan hartuta, gaikako bilketaren indizearen bilakaera honako hau da:

Etxeko eta merkataritzako gaikako bilketa tasa (%)



Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Saila

Kaleko edukiontzia, establezimenduak, garbiguneak eta saikapen planta kontuan hartuta gaikako bilketa tasa (%) (enpresetako eta hondartzetako datuak kanpo)



Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hiri-hondakinak hodi-bukaerako tratamendu plantetara garraiatzen ditu.

- Bio-hondakina: Epeleko Konpostatze Plantara.
- Ontzi arinak: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentrora (Zubietan).
- Hondartzako hondakinak: Elgoibarko transferentzia estaziora.
- Errefusa: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentrora (Zubietan).

Zubietako Hondakin Kudeaketa Zentroa 2020 urteko abenduan martxan jarri zen, bertan errefusak bi tratamendu jasotzen ditu:

### Tratamendu mekanikoa eta biologikoa:

- **Tratamendu mekanikoa:** errefusean presente dauden material birziklagarriak berreskuratze (paper, kartoi, plastiko ontziak, burdin metalak, burdin gabeko metalak, tetrabrick, eta abar).
- **Tratamendu biologikoa:** berreskuratu gabeko frakzioaren bio-lehortzea, deskonposizio anaerobikoa eta hondakinen lehorketa; balorizazio energetikora bidaliko den hondakin kopuruaren murrizketa lortuz.

### Balorizazio Energetiko Planta: errausketa instalazioa balorizazio energetikoarekin.

Ez dago Eskualdeko birziklatze-tasari buruzko datu eguneraturik, ezta gaikako bilketaren kalitateari buruzkoa ere. **Gipuzkoan, 2021ean birziklatze-tasa %55,32koa izan zen.**

2014ko abenduaren 31n Zarautzeko **Urteta zabortegia** itxi zen. Ordura arte irekita egon zen eta hondakinak jasotzen zituen.

Zabortegia behin betiko ixteak bi fase nagusi ditu: batetik, hondakinak pilatuta dituen eremua zigilatu egin behar da, eta, bestetik, prozesu horren ondoren zabortegian hogeita hamar urtez, gutxienez, jarraipen, kontrol eta mantentze-lanak egin behar dira. Urteta zabortegia zigilatze obrak 3 fasetan egiten ari dira: I. fasea 2014ean amaitu zen, II. fasea 2016an amaitu zen eta III. fasearen hasiera 2023 izango da.

### Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak

Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko aipatutako zerbitzua arautzen duen ordenantza 2018an onartu zen. Ordenantza honen objektua da Urola Kostako Udal Elkarteak osatzen duten bost udalerrietako etxebizitza, komertzio, zerbitzu eta industrietan sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua arautzea.

Hondakinak biltzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dute etxebizitzek, establezimenduek eta industrialdeetako enpresek.

- **Etxebizitzek** tasa finkoa da. Autokonpostajea eta konpostaje komunitarioa egiten duten etxebizitzek hobariak dituzte.
- **Ostalaritza eta antzekoak:** Tasa establezimenduaren tipologiaren, azaleraren eta/edo eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera da.
- **Ikastetxeak, egoitzak eta antzekoak:** Eskaintzen dituzten plazen arabera aldatzen da.
- **Merkataritza:** Establezimendu motaren arabera aldatzen da.
- **Industria:** Industrialdeetako enpresek ordaindu beharreko tarifa ateratzen da hiru osagai hauek batera aplikatuta:
  - Metro karratuko tarifa, metro karratuen kopuru osoarekin biderkatuta.
  - Edukiontzien tarifa, errefusa eta hondakin organikoentzat erabiltzaileak dituen edukiontzien kopuru osoarekin biderkatuta.
  - Errefusa erretiratzeko zerbitzu-unitateen tarifa, unitate baten tarifa jasotako unitate kopuru osoarekin biderkatuta.

Industrialdeetan dauden enpresetan izan ezik, zeintzuetan tasak sortzen den hondakin kopuruarekin nolabaiteko lotura duten, gainontzeko erabiltzaileen kasuan ez dago tasa eta sorreraren arteko loturarik.

### Zabor sakabanatuak eta hondakinen isurketa inkontrolatuak

Nahiz eta hondakinak jasotzeko zerbitzuak egon eta hauek arautuak egon, oraindik ere, naturan dauden barreiatutako zaborren pilaketa arazo larri bat da orokorrean, baita Zarautzen ere. Duela urte batzuekin alderatuta orokorrean asko hobetu da barreiatutako zaborren pilaketa, gero eta pilaketa gutxiago agertzen baitira, batez ere eremu lurtarrean. Garbiguneak martxan jarri zirenetik herritarrek bertara eramaten dituztelako beraien hondakinak, baita obra txikitako hondakinak ere. Hala ere erreka inguruetan oraindik ere agertzen direla plastikoak edo bestelako hondakinak. Udalerrian ospatzen diren ekitaldietan ere zabor asko sortzen da, horregatik, orokorrean egun horietan kontenedore gehiago eta garbiketa zerbitzu bereziak jartzen dira martxan.

Zarautzen ondorengo hondakinen pilaketa puntuak eta fokuak identifikatu dira:

- 1- **Errekek:** Orain dela urte batzuk, eremu laueta, erreka garbitzeko zerbitzu bat jarri zuen martxan udalak. Urtean bi garbiketa egiten dira, bata apirilean eta bestean irailean, euskal jaien ondoren. Erreken inguruan baratzak eta utzitako industriagune zaharrak daude (Eroski ingurua) utzitako eraikinekin, leku hauetan agertzen dira zaborren foku batzuk.
- 2- **Biotopoko padurak:** Orokorrean zabor txikia pilatzen da bertan baina noizean behin sofaren bat, Eroskiko karroak...ere aurki daitezke. Udalak 2022tik aurrera erreken garbiketa zerbitzuaren baitan eremu honen garbiketa zerbitzua ere barneratuta dauka.

- 3- **Kanpinaren inguruko belardiak:** Baserritarrak kexatu egin izan dira bertan botilak, txapak, plastikoak...agertzen direla. Aisialditik eratorritako hondakinak dira, kanpinean dauden pertsonetatik sortuak. Kanpainak egin izan dira, alde batetik belardiak errespetatu eta ez zapaltzeko eta bestalde zaborra bertan ez uzteko eskatuz.
- 4- **Moiarri eta Santa Barbara:** Landa eremuak dira hauek eta turismo aldetik erakargarriak izaten dira, bertan baitaude hainbat bide, ruina eta behatoki. Udalak behatoki hauek eta bidea urtean bitan garbitzen ditu.
- 5- **Abendaño industriagunea:** Industriagunearen atzeko alde guztian zaborra pilatzen da, enpresek edo txaboletako jabeek utzitako zaborrak dira (bidoiak, paleak, txaboletako hondakinak...). Abendaño erreka igarotzen da bertatik (erreka guztiz kanalizatuta dago) eta alde horretan pilatzen dira hondakinak. Txabolak ere agertzen dira, eta hauek asko zabaltzen direnean Eusko Jauriaritzak udalari abixua pasatzen dio garbiketa egiteko. Urtean behin edo bitan udalak garbiketa egiten du. Abendaño industriagunetik gora, errekan gora, obretako hondakinak ere azaltzen dira, landa eremuan.
- 6- **Erdialdeko industriagunea:** Gazte lokalak daude bertan eta hauek ez dutenez kontenedoreentzako txartelik izaten, lurrean agertu ohi dira zaborrak (plastikozko botilak, latak, plastikoak...). Saiatu izan dira gazte lokaletako pertsonekin hitz egiten, txartela eskatu dezaten, baina oraingoz ez da ezer egin.
- 7- **Zarauzko garbigunea:** inguruan askotan hondakinak agertzen dira, orokorrean bolumen handiko hondakinak. Hau Garbigunearen ordutegiarengatik izan daitekeela aipatzen da.
- 8- **Autopistaren azpia:** Obretako hondakinak azaltzen dira, nahiz eta udalerrian Garbigunea izan. Hala ere, Garbigunea ireki zenetik gutxiago topatzen dira arestian aipatu bezala.

### Elikagaien xahuketa

Urola Kostako Udal Elkarteak 2021 eta 2022 urteetan **Eskualdeko elikagaien xahuketaren diagnosis** egin du, 2022-2023 **elikagaien xahuketaren ekintza plana** jarriko delarik martxan.

Udalak **Gourmet Bag** kanpaina egin zuen 2021ean, 21 jatetxeen parte hartzearekin, bezeroek bukatzen ez duten platerako janaria etxera eramatera bultzatzeko. Horretarako jatetxeetan ontzi biodegradagarriak banatu dira, plastikozko erabilera bakarrekoak saihestuz.

### Konsumo arduratsuari, hondakinen prebentzioari eta kudeaketaren hobekuntzari buruzko sentsibilizazioa

Ikusi den moduan, hondakinei buruzko datuak hoberantz doaz, baina hala ere, oraindik hobetzekorik badago, horregatik ezinbestekoa da herritarrak eta Zarautzera bertaratzen direnak sentsibilizatzen jarraitzea. UKUEk hainbat sentsibilizazio-kanpaina egin ditu urteetan, **hondakinen prebentzioari eta gaikako bilketa hobetzeari** begira, adibidez:

- **ZiSare**, ikastetxeetan konposta egiteko kanpaina eta hau 2015ean jarri zen martxan eta gaur egun jarraitzen du. Hauek dira parte hartzen duten ikastetxeak: Antoniano, Orokieta Herri Eskola, La Salle-San Jose, Salvatore Mitxelena eta Lizardi.
- **Bagoazz**, 2018an indarrean sartuko zen hondakinak gaika sailkatzeko bilketa sistema berria komunikatzeko kanpaina.

- **Eskola Agenda 2030**aren bidez ere lantzen dira 12. GJHari erantzuteko gaiak eskualdeko ikastetxeetan, haur hezkuntzatik hasi eta lanbide hezkuntzaraino.
- **Eta hobetu genezake** goiburua hartuta, eskualdeko komunikabideetan birziklatzearen aldeko sentsibilizazio kanpaina. 2019ko martxotik abendura burutu zen. Helburua zen herritarrei urtebeteko balantzearen berri ematearekin batera, birziklatzen eta hobetzen jarraitzeko deia luzatzea.
- **Konpost + hondakin** – konposta egitea sustatzeko kanpaina da. 2005ean jarri zen martxan eta orduz geroztik deialdiak egiten dira, konposta egiteko aukera, prestakuntza, laguntza eta baliabideak eskainiz. 2022an 239 erabiltzaile autokonposta egiten dute eta 10 erabiltzaile auzokonposta.



Urtean zehar, hondakinen arloan eragiten duten beste sentsibilizazio-ekintzak ere egiten dira, hala nola:

- **Ingurumenaren zaintzari buruzko “ZABORRA!” antzezlan**a, herritarrengan zenbait problematika eko-sozialen inguruko hausnarketa eragitea da helburua.
- **Sektore desberdinei bideratutako hondakinen bilketari buruzko tailerrak** (jubilatuentzat, merkatariarentzat, ostalarientzat...).

Udalaren Ingurumen sailak, EMAUS Fundazioaren eskutik **Zarautz plastikorik gabeko herria** kanpaina abiatu zuen 2018an, erabilera bakarreko plastikoak murrizteko helburuarekin. Helburu hori lortzeko hainbat ekimen bultzatu dira, besteak beste:

- **Sarez egindako poltsen eta poltsa konpostagarrien** banaketa egin zen.
- Asteko egun bat **“poltsarik gabeko eguna”** izendatu zen.
- Material birziklatuaz egindako 40 **erosketa karro zozketatu** ziren.
- **Hondartzako garbiketak** antolatzen dira.
- **“Kantauri Fest” ekitaldia** antolatu zen *plastikorik gabeko itsasoa nahi dugu* lelopean, *itsasoa hemen hasten da, mesedez, ez bota ezer* kanpaina.

Kontsumo arduratsua bultzatzeko ekintzak bertako elikagai/produktuen kontsumoaren sustapenaren ingurukoak izan dira batez ere, Udalak ondorengo antolaketan parte hartzen duelarik:

- Sagardo Eguna Zurekin ostalaritza elkartearekin elkarlanean
- Nekazaritza biologikoa, Biolur eta Urkomerekin batera
- Mahats bilketaren jaia, CRDO Getariako Txakolinarekin
- Micológica, Arkamurka Natur Taldearekin
- Zarautzko ekonomia alternatibo eta solidarioaren azoka.

### Erosketa eta kontratazio “berdea” eta udal-zerbitzuetako ingurumen-kudeaketa

**Udal-zerbitzuetako ingurumen-kudeaketari dagokionez**, kudeaketa-sistema ezarrita duen zerbitzu bakarra hondartzaren kudeaketa da.

2002. urtean hondartzan ingurumena kudeatzeko sistema ezarri zen, ISO 14001 nazioarteko arauaren arabera eta 2004. urtean EMAS Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoreko arauaren arabera. Urte hauetan zehar, Udalak **baliabide** eta **esfortzu** asko egin ditu **hondartzaren ingurumen kudeaketa hobetzeko**. Horri esker, esparru askotan hobekuntzak lortu dira, hala nola:



### **Hondartzako zerbitzuen kudeaketan hobekuntza**

Energia eta uraren kontsumoak kontrolatu eta kontsumo horiek gutxitzeko instalazioetan hobekuntzak egin. Sortutako hondakinen kudeaketa hobetu. Bainurako uren kalitatea kontrolatu. Hondartzan lan egiten duten kontratekin harremana hobetu.

### **Hondartza eta bere inguruaren aberastasun natura babestea**

Lur azpiko akuiferoaren ezagutza eta babesa hobetu. Hondartza eta bere inguruneko biodibertsitatea hobeto ezagutu eta zaindu.

### **Herritarren ingurumen sentsibilizazioa**

Hondartzako natura aberastasuna ezagutarazi. Hondartzaren ingurumen alderdi nagusienak komunikatu eta hondartzaren gozamenak sor dezaken inpaktuaz ohartarazi.<sup>4</sup>

Erosketa eta kontratazio publiko berdearen arloaren balorazio egiteko Udalak udalerriko lanak udal langileekin egiten ditu zuzenean eta beste zenbait berriz, kontratatutako enpresen bitartez. Azken horien artean, erosketa eta kontratazio batzuk udaletik zuzenean egiten idra, eta beste batzuk, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erosketa Zentralaren bidez.

Zehazki, erosketa zentraletik egiten diren erosketak eta kontratazioak honako hauek dira: bulego materiala, produktu higienikoak, ordenagailuak, material elektrikoa, gasolina, igogailuak (zerbitzu eta hornidura). GFAk erosteko eta kontratazio arduratsua egiteko irizpide propioak ditu.

Udalak azken urteotan egiten dituen erosketa eta kontratazioetatik ingurumen-irizpideak sartu dira honako zerbitzu hauen kontratazioetan eta ondorengo irizpideak eskatzen zaizkie enpresei:

- **Garbiketaz arduratzen den enpresa:**
  - Kaleak garbitzeko tratatu gabeko ura erabiltzen dute. Horretarako, Vista Alegreko depositutik hartu behar dute ur hori.
  - Beraien lana burutzean ahal den zarata gutxien sortzeko ahalegina egiten dute. Horretarako kalea garbitzeko haizea botatzen duten makinak, zarata baxukoak dira eta konpromisoa hartzen dute orokorrean bozinarik ez erabiltzeko.
  - Hondakin bilketa eta kale garbiketako zerbitzuak, ezarria du ISO 14001 Ingurumen Kudeaketako Sistema eta, sistema horren baitan hartutako konpromisoak betetzen ditu.
- **Lorazaintzaz arduratzen den enpresa:**
  - Esleipendunak, makinaria ahal den isilenak erabiltzen ditu.
  - Ez dute bozina edo bestelako soinu-dispositiborik erabiltzen hirigunean.
- **Hondartzako sorospen zerbitzuaz arduratzen den enpresa:**
  - Esleipendunak laguntzen du, Udalak hondartza eta honen inguruarekin lotuta egiten dituen kanpainetan. Bereziki lagundu du Itsas ertzeko bioaniztasunari buruzko dibulgazio irteeretan.
- **Hondartzetako kantinek kudeatzeko enpresak:**
  - Esleipendunak hondakinak sailkatuta jasotzen ditu.
  - Kantina zein komunak garbitzeko erabiltzen dituzten produktuak ingurumenean eragin txikiagoa dute (ekologikoak eta biodegradagarriak dira).
  - Esleipendunak ezin dute erabili oro har jendea gogaituko duen zaratarik sortzeko moduko bozgorailu, irratik edo antzeko tresnarik.

### EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Hondakinen jasoketaren sistema:** Urola kostako Udal Elkarteak hondakin jasoketa sistema aldaketa egin zuen, eta aldaketarekin batera herritarrei begirako hainbat sentsibilizazio kanpaina, guzti horri esker, gaikako bilketaren tasa handitu egin da.
- **Errekak eta hezeguneak garbitzeko udal zerbitzua:** Udalak erreken egoera ikusirik eta hauek itsasoan duten eraginaren jakitun izanik, hauen garbiketa egiteko zerbitzu bat jarri zuen martxan 2016. 2022an zerbitzu hau zabaldu egin da eta Biotopoa eta Lrita hezegunea ere barneratu ditu zerbitzuaren baitan.
- **Plastikorik gabeko herria kanpaina:** Kanpaina zabal honen baitan, herritarrak gaiaren arloan sentsibilizatzeko eta itsasoan plastikoez sor dezaketen kutsaduran ohartarazteko hainbat ekimen egin dira.
- **Hondartzaren ingurumen kudeaketa:** Hondartza elementu garrantzitsua izanik Zarautzen eta eremu oso bisitatua denez batez ere udan, hondartzaren kutsadurari aurrea hartzeko eta erabiltzaileen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzeko konpromisoa dauka eta hau ingurumen kudeaketara sistema bidez gauzatzen du, **ISO 14001 eta EMAS** Europako Ekokudeaketa eta Ekoauditoria arauaren arabera.



### ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Gaur egungo zerbitzuekin etxebizitza berriei eta, urtaroen arabera, turismoari lotutako biztanleria-gehikuntzari erantzuteko gaitasun nahikoa izango ote dagoen zalantza azaldu da.
- Kaleetan eta hondartzetan garbitasun eza geroz eta handiagoa dela komentatu da, batez ere asteburuetan eta turismoaren goi-denboraldian. Hala ere, honen inguruan iritzi desberdinak jaso dira, Zarautz udalerrri garbia bezala identifikatu baitute zenbait herritarrek baita ere.
- Elikagaiak alferrik galtzearen kezka jaso da.
- Supermerkatu handiak irekitzeak tokiko merkataritzari eta km0 produktuei kalte egingo dien beldurra dago.
- Herritarrak kontzientziatuta ez egotea, eta, horren ondorioz, gaikako bilketaren/birziklapenaren tasa bere horretan geratzea edo okerrera egitearen kezka azaldu da, nahiz eta badauden Zarautzen asko birziklatzen denaren iritzia duten herritarrak..

### ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz (tresna elektriko eta elektronikoak, tamaina handikoak, ehunak eta beste produktu batzuk).
- Gargibunea egokitzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzeko.
- Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, erosketa-jardunbide egokiak sustatuz eta horrela, ontzi-hondakin gutxiago sortzeko: erosketa-ontzi berrerabilgarriak, soltean erosteko moduak, plastikozko poltsak kentzea, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab.
- UKUEk egindako Elikagaien xahuketaren aurkako plana ezartzea.
- Obra handietako zein txikietako obra-hondakinen kontrola hobetzea.
- Sorkuntzaren araberako ordainketari ekitea, sektore guztietara bideratuta: herritarrak, merkataritza eta industria sektoreak.
- Zarauzko garbiketa eta zabor sakabanatuen kontrola hobetzea
- Udalaren erosketa eta kontratazioetan jasangarritasun-irizpideak sartzeari, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sartzeari barne: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.